


noaua



EHUNKA FEMINISTA GAZTE ELKARTU ZIREN BATERAJOTZEAN

Euskal Herriko txoko ezberdinetatik etorritako neska* gazte ugari bildu ziren Usurbilen / 12

ARGAZKIA: @EH_NESKAGAZTEAK




**Igandean Sutegin
'Artxibo biluzia',
sortze-prozesuan
den antzezlana** / 08



**Buruntzaldeko
Ibilbideen XV. Eguna
igande honetan
ospatuko da** / 10



**Joseba Larratxe:
"Pozgarria da jendea
zuregatik pozten
dela ikustea"** / 11



**Larunbat goizean,
'Andatzako
defentsa-lerroa'
ibilaldi antzeztua** / 22

USURBIL
O P T I K A

2x1

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN
LENTE PAREA
DOAN!

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

BEHORIA GARBIA
21/10

ORIO
ARRAUNETXE
Ordu-tegiak eta Erreserbak
TXOKOALDE

www.begi-bistan.com
657 794 677

BIZI ORIAKO JAITSIERA!

Musika, dibertsioa, sariak... eta **SORPRESA UGARI!**

EUSKADI
BASQUE COUNTRY
begi • bistan
negua
ORIO
euskotren
GIPUZKOA
TURISMOA

BAZKIDEEN TXOKOA
noaua! euskararen aterpe

BIZI ORIAKO JAITSIERA!

URRIAK 21 ean
ORIAKO JAITSIERARAKO
2 sarrera bikoitz
zozketatuko ditugu (urriaren 18an)

**HERRIA HERRIK
BESTE
25
DAIETZI**

Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkartea@noaua.eus

Lierni Rekondok gidatuko du Udarregi ikastolako bertso-eskola

Irailean hasi zen ikasturtea eta duela gutxi hasi dira eskolaz kanpoko jarduerak. Bertso-eskola da horietako bat. Honakoan, Lierni Rekondo bertsolari lasartearrak gidatuko du taldetxea. Intereza duenak oraindik aukera dauka taldera batzeko. Astelehenero biltzen dira, 13:30etik 14:30era bitartean.



Argazkian, bertso-eskolako ikasleak eta Lierni Rekondo bertsolari lasartearra. Astelehenero batzen dira, eguerdi partean.

Garbigune mugikorra, aste honetan Txokoalden

Urriaren 19tik aurrera, garbigune mugikorra Txokoalden izango da. Era honetan, etxeko hondakinen berrerabilpena eta birziklatzea sustatu nahi da. Hondakinak bere horretan bota, poltsarik gabe. Urriaren 26an osteguna, garbigune mugikorra Santuenera eramango dute.

1973. urtean jaiotakoekin kinto bazkaria

"1973an jaio ginenok aurten 50 urte borobil beteko ditugunez, bazkari batez ospatzea erabaki dugu. Azaroaren 25ean Atxega jauregian elkartzekotan gara eta zu ere bertaratzea gustatuko litzaiguke. Izena emateko azken eguna: azaroak 15. Izaro (658 744 904) edo Joseba (661 122 568)".

1955ean jaiotakoekin larunbat honetan batuko dira Atxegan

"Urriaren 21ean larunbata, bazkaltzera elkartzeko asmoa dugu 1955ean jaiotakoekin. Atxega jauregiko jatetxean, eguerdiko ordubiak aldera. Bertaratu nahi duenak, aurrez izena eman dezala, honako telefono zenbakietara deituz:

675 00 64 45 Maribi
615 76 04 58 Patxi".

1959an jaiotakoekin bazkaria, azaroaren 18an

Udazkena izan ohi da kinto bazkariaren garaia. 1959an jaiotakoekin iragarri dute beren ospakizuneko eguna: azaroaren 18an batuko dira. Igorri diguten informazioan tokia ez dator zehaztuta. Topaketa honetan izena emateko honako telefono zenbakira deitu behar da: 659 139 073.

noaua

TOKIKOM

Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberrí 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria:
Aiaitz Aizpurua.

Erredakzio kontseilua:
Aritz Lasarte, Ixaso Orbeagozo,
Imanol Ubeda.
Diseinua: Goiena.
Publizitate arduraduna:
Beatriz Alda.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzaleak:
Iñaki Irazusta, Iban Maritxalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 2.980 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu
ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI BENGOTXEA

Petrikiloak

Duela gutxi, Orioko udalak, herriko hitzak eta esamoldeak biltzeko eta zabaltzeko beka-deialdia egin duela ikusi dut. Belaunaldi berriek ere, hauen berri izan eta naturaltasunez erabiltzea sustatu nahi dute, etalan hori egiteko prest dauden gazteei eskaini zaie aukera. Ideia aproposa iruditu zait, izan ere, ziur nago gutako askok senide, bizilagun eta ezagun askoren falta sumatu izan dugula eskuko hatzetatik ihesi egin digun jakinduriaren pisua sentitzen hastean.

Gaur egun, oraindik badira gorputz gazteetan osatu diren entziklopediak diruditen giza-ki miregarriak. Garai bateko kontu, izen eta erreferentzia guztiak barruan jaso eta mantentzeko gaitasuna izan, edota hautua nahiz erabakia hartu dutenak. Nik behintzat, asko miresten ditut halakoak eta pozgarria iruditzen zait zuek ere hau irakurtzean baten bat gogoan izateko aukera izatea.

Hala ere, esango nuke lehenik eta behin, ia gehienok erreferentzia nagusizat familiako edo inguru hurbileko jende heldua izan dugula. Eta agian haien galerak gogorarazi digula gaur egun, berrikuntza eta garapen teknologiararen izenean, ez dakigula informazioari behar duen bezalako balioa edo tra- taera ematen.

Dagoeneko, bizitzako une oro, argazki digitaletan eta bideotan harrapatzea ohitu gara.



"Nik ahotan 'curandero' hitza hartu dut. Orduan aditu dut bizitzan lehen aldiz petrikilo hitza".

Sare sozialetan eta interneten zintzilikatzen inolako filtro moralikgabe, baina filtro estetikoaz gainezka. Baina bizitza, zertan neurtzen da zehazki? Nola bildu ondorengoek jasotzea nahi genukeen esperientzia eta jakinduria baliagarriena?

Gaur, familiaratean, belar sailen urteko hirugarren mozketak bildu eta jaso dugu elkarrekin. Kuadrilla polita bildu garenez, aise bukatu ditugu lanak, eta giro susmagarri eta udatiarraz gozatzerako batu gara arratsalde pasa etxeko atarian. Berrogeita

"BEHIN AMONARI SUGE GORRI BATEK HELDU ZION ETA SENDA BELARREKIN ZEBILEN GIZON BATEK SENDATU ZUEN"

hamar eta hirurogei urte bitartekoak gehienak. Eta haien urte erdikoak, gainerakoak.

Ea aspaldian ziraunik ikusi ote dugun galdetu du batek. Belarrak lantzean, ia beti azaltzen direla erantzun dio beste batek. Eta berehala, sugeen inguruan garatu da elkarrizketa. Duela ez asko, belarrak biratzerakoan, bere buruarengan kiribildutako pila bat topatu zuela oroitu du amakileak tentetuta. Eta orduan oroitu dugu, nola behin amonari suge gorri batek heldu zion hozka belar meta batean jolasean zebilela. Zorionez, senda belarrekin aritzen zen gizon batek sendatu zuen. Nik ahotan, 'curandero' hitza hartu dut. Ez bainekien ez ohiko sendagilea nola izendatu. Eta orduan aditu dut bizitzan lehen aldiz petrikilo hitza.

Eta halaxe, nahigabea, pasarte huraxe behar den moduan kontatzeko hitza jaso dut barruan.

Aniztasun Kontseiluaren bilera

Sorterri guztietako usurbildarren topalekua izaten den Mundualdia azaroaren 4rako iragarri dute antolatzaileek. Aurretik, ordea, baita beste zenbait ekimen ere. Legealdi berriarekin martxan den Aniztasun Kontseilua ostegun honetan bilduko da.

Urriak 19, osteguna

18:00 Aniztasun Kontseiluaren bilera Potxoenean. Hizpideak: azken hilabeteotako lanketa eta aurrera begirako erronkak. Bilera irekia interesa duen herrikide orentzat.

Azaroak 2, osteguna

18:00 Alkatearen ongietorri saioa urte hasieratik irailera bitarte herrian erroldatutako Usubilgo Udaleko udalbatza aretoan.

Azaroak 4, larunbata

Mundualdia.

Artisau Azokarako izen-ematea

Aitzaga elkarteak azaroaren 1erako antolatzen ari den Artisau Azokan postua jarri nahi duenak artisautzaazoka@gmail.com helbidera idatzi dezake.



Azaroaren lehenean ospatuko da.

HAUXE BAI JENEROAI

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

EUSKALTZALE INDEPENDENTISTON TOPAKETETAN ENTZUNDAKO LELOA

'EUSKADI' HITZA ERABILTZEARI UTZI

ETA EUSKARAREN ERREPUBLIKA ALDARRIKATU

doiazlara labri biodeia izter bezainbat.. gathia negutan

trumoi edoi dakarkizue sobera

negun bihar zelaxe semia gizona gathia negutan

katue beste selaixe dabil katua berrogeialhaba

oba alabea zelaya diezte neguen beso

gitxieng gehiegi sagarroia

ekarri lagun maitarzun idatziz juten dia

adiskide katuba maitasun

@gertineubeda



Kayak irteerak Txokoaldetik abiatuko dira. Begi Bistanek antolatu ditu larunbat honetako jarduerak. ARGAZKIA: ORIOKO UDALA.

Behoria Garbia jarduerak jasangarritasuna eta kirola uztartuko ditu

Begi Bistanek Behoria Garbia ekimena antolatu du Oria ibaiaren itsasadarrean. Egun osoko egitaraua prestatu dute larunbat honetarako eta, besteak beste, ibaia kayak-ean jaisteko aukera izango da. Izen-ematea zabalik dago begi-bistan.com web orrialdean.

Eguneko jarduera nagusia Oria ibaiaren jaitsiera izango da. Orioko Udalak aditzera eman duenez, bi modalitate egongo dira: kayak-ean eta arraun-surf-ean.

Lehen kasuan, hiru txanda egingo dituzte, eta Usurbilgo Txokoaldetik behera, ibaian zein ibaiertzean aurkitzen duten zaborra jasoko dute. Hiruzpalau orduko iraupena izango du.

Arraun-surfari dagokionez, Arraun Pote Zero Waste izena

jarri diote jarduerari, eta kua-drillan egiteko alternatiba gisa proposatu dute. Orioko Arraunetxetik behera, ordubeteko iraupena izango du irteerak. Hiru txanda aurreikusituzte, eta horietan lehenak izatera inklusiboa izango du.

Bisita gidatuak

Kirol jardueraz gain, Orio herria eta arraunaren historia ezagutzeko bisita-gidatuak ere egingo dituzte egun horretan, euskaraz eta gaztelaniaz.

Hauek dira orio.eus web orrialdean zehaztuta datozen ordutegiak:

- *Izan ginelako gara:* Turismo-bulegotik abiatuta. 11:00etan euskaraz, eta 12:00etan gaztelaniaz.

ORIAKO JAITSIERA KAYAKEN ETA ARRAUN SURFEAN EGINGO DA

- *Arraunaren historia:* Arraunetxetik abiatuta. 16:00etan euskaraz, eta 17:00etan gaztelaniaz.

Bisitak doakoak izango dira, baina ezinbestekoa izango da alde aurretik izena ematea.

Tailerrak, erakusketak eta hitzaldiak

Bisita gidatuez gain, bi tailer labur eskainiko dituzte Mundua eraldatzen duten eko-ekin-tza txikiak izenburupean. Plastikoak sortzen duen arazo larriaren inguruan kontzientzia eragitea du helburu, eta doakoa izango da. 16:30ean eskainiko dute euskarazko saioa, eta 17:00etan gaztelaniazkoa.

Horrez gain, *Surfing for Science* proiektuaren erakusketa izango da ikusgai egun osoan Herriko Plazan. Eta erakusketari lotuta, proiektuaren aurkezpena eta hitzaldia ere eskainiko dituzte 12:30ean, elebitan.

Goiz partean jasotako hondakinekin, erakusketa

Arratsaldean, goizeko irteeretan bildutako hondakinen erakusketa jarriko dute. Orioko Herriko Plazan, 17:00etatik aurrera, eta horren ondoren *Pentsatzen dut, beraz, jarduten dut: mundua eraldatzen duten tokiko ekintzak* solasaldiaren txanda iritsiko da.

Sari banaketa

Egunari amaiera emateko, sari-banaketa ekitaldia egingo dute. Goizeko irteeretan hondakin gehien jaso dituzten kayak-ak sarituko dira, hainbat kategoriatan banatuta.

Informazio gehiago Begi Bistanen web orrialdean aurkituko duzue: begi-bistan.com/eu/

Okindegia-Gozotegia
LABE-GOXO

txirriStra
·PLATER KONBINATUAK ·BOKATAK ·PINTXOAK
TABERNA
Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66

Artzi
Patri 1981 / JateXEA
· bazkariak EGUNERO
· afariak ostirala eta larunbata
© 943 362725 · © 688 690 361

"Kalejiretan jotzeko, alboka instrumentu aproposa da"

TERESA JAREÑO ALBOKA IRAKASLEA

Astean behin 30 minutuko klasea eskainiko du Zumarte Musika Eskolan. Esker oneko instrumentua dela dio, "hasieratik has zaitezkeelako melodia txikiak jotzen".

Azaroaren 6an hasiko da alboka ikastaroa eta matrikulazio kanpaina orain hasi da. Musika ezagutzarik ez duenak ere izena eman al dezake?

Alboka ikastaroan izena emateko ez da musika ezagutzarik behar. Egia da musika irakurtzen jakitea abantaila dela abestiak errazago edo azkarrago ikasteko garaian.

Hala ere, nik asko erabiltzen ditut audioak eta nire ikastaroan 'belarriz' ere ikasten da. Ez dugu ahaztu behar musika hizkuntza bat dela, irakurtzeak laguntzen duela baina ez dela behar beharrezkoa. Baliabide ezberdinak erabiltzen ditugu albokako abestiak ikasteko.

Alboka ez da instrumentu erraza. Fama hori du, arnasketak zeresan handia duelako. Denbora asko behar da modu txukun batean menderatzeko?

Beste instrumentu guztiak bezala, denbora eskaini behar zaio. Dena den, alboka instrumentu eskertua dela esango nuke. Hasieratik erraza da soinua ateratzea, eta hasieratik has zaitezke melodia txikiak jotzen. Eta horrek asko animatzen du ikaslea.

Bestetik, albokak beste jende batekin jotzeko aukera ematen du eta, alde horretatik, instrumentu polita da jotzeko.

Albokaz ari garenean, arnasketak zirkularren gaia aipatzen da sarritan, baina beste gauza guztiak bezala, hori ere ikasi



Argazkiaren erdialdean da Teresa Jareño alboka irakaslea. Elkarrizketa osoa, NOAUA! podcastean entzungai: noaua.eus/bereziak/noaua-podcasta

egiten da. Lehenbizi ulertu egin behar da nola egin behar den, eta behin praktikatuta gero, atera egiten da.

"ALBOKAREKIN HASIERATIK HAS ZAITEZKE MELODIA TXIKIAK JOTZEN"

Beste jende batekin jotzeko aukera ematen duela esan duzu. Dena den, eskolak bakarkakoak izango dira, ezta?

"ALBOKAK BESTE JENDE BATEKIN JOTZEKO AUKERA EMATEN DU"

Instrumentuak normalean bakarkako klaseetan ikasten dira. Baina niretzat oso garrantzitsua da taldean jotzea. Kalejiretan jotzeko aproposa denez, errepertorio minimo bat menderatu orduko, ikasleak kalean jotzera animatzen ditut.

Aurreko ikasturtean adibidez, Usurbilgo Txalaparta Festan parte hartu genuen, kalea girtzen, eta nire ikasleek ere hartu zuten parte.

Bakarkako saioak izanik, ikasle bakoitzari arreta gehiago eskaintzeko aukera emango dizu. Bide batez, nolako izango da zure ikastaroko dinamika?

Hasieran bai, eskolak indibidualak dira, teknika guztiak erakutsi ahal izateko. Musika instrumentuak ez dira kantopetik begira ikasten diren horietakoak. Instrumentua berez, gure biriketan hasten da eta badaude gauza asko esplikatu behar direnak eta ulertarazten saiatu behar direnak, ondoren ikasle bakoitzak egin ahal izateko.

Lehen aldia duzu Zumarten alde aurretik ere eman al dituzu eskolak bertan?

Hau da nire hirugarren ikasturtea Zumarten eta luxua da Usurbilgo musika eskolak hartu duen konpromisoa; bereziak diren instrumentuak erakusteko nahiarekin. Ez da erraza halako musika tresnen inguruko irakasleak topatzea eta Zumartek egiten duen ahalegina eskertzekoa da. Herritarrei egiten dien eskaintza ederra da eta esango nuke ez gabela horren jabe egiten. Baten batek dultzaina edo armonika ikasteko gogorik balu adibidez, nik animatu egingo nuke, horrelako aukerak ez direlako erraz topatzen.

Zure ikastaroetara zer nolako ikasleak etortzen dira? Helduak dira nagusi ala gazteak ere animatzen al dira?

Alboka ikastera profil ezberdineko jendea gerturatzen da. Gehien bat heldua izan ohi da; interes eta jakinmin handia dutenak normalean. Batzuk musikariak dira, bigarren instrumentu bat ikasteko gogoz hurbiltzen direnak, baina bada oraingo arte musikarekin kontakturik izan ez dutenak; eta oso argi dutenak alboka ikasi nahi dutela. Instrumentu oso egokia da publiko guztiarentzat eta interesa duen orok aukera ederra du gerturatzeko.

Zuri Teresa, noiz sortu zitzaizun alboka jotzeko interesa?

Nire instrumentua berez klarinetea da. Nik alboka heldutan ikasi dut.



Teresa Jareño Gipuzkoako Albokari Taldeko kide da. ARGAZKIA: SOINUJENEA.EUS

Duela urte dezente Oreaka TX taldearen kontzertu bat ikustera joan nintzen Donostiara, eta han ikusi nuen lehen aldiz albokari bat zuzenean. Mixel Ducau, Oreaka TX-ko musikaria. Erabat txundituta

utzi ninduen eta une horretan erabaki nuen alboka ikasi nahi nuela. Baina ez pentsa, kosta egin zitzaidan non ikasi topatzea. Pare bat urte edo. Interneti esker, gaur egun informazio gehiago dago. Baina

niri garai hartan dezente kostatu zitzaidan irakasle bat topatzea.

Ikastaroak eskaintzeaz aparte, zuzenekoak ere eskaintzen al dituzu bakarka edo talderen batekin?

Aurten disko batean kolaboratu dut. Gipuzkoako Albokari Taldearekin 'kale bueltak' ematen ditugu eta festetan ere jotzen dugu.

Oraitxe bertan hirukote bat osatu dut eta alboka beste musika instrumentu batzuekin nahasten saiatzen gara. Aukera asko ematen ditu eta uste dut pixkanaka-pixkanaka toki gehiagotan entzungo dela eta bere doinu berezia jende gehiagori egingo zaiola ezagun.

Zumarte ikastaroak, 2023/2024

Gitarra +55 urte

- Irakaslea: Ixak Arruti.
- Maiztasuna: astean ordu bat.
- Eguna: asteartea, 10:00etan.
- Prezioa: matrikula 100 euro + 22 euro hilean.

Armonika

- Irakaslea: Asier Nieto Kixki.
- Maiztasuna: astean 30 minutu (bakarka).
- Eguna: irakaslearekin adostuta.
- Prezioa: matrikula 140 euro + 30 euro hilean.

Ukelelea

- Irakaslea: Nuria Culla.
- Maiztasuna: astean ordu bat.
- Eguna: astelehena, 19:30ean.



Ixak Arrutik 55 urtetik gorakoentzako gitarra ikastaroa eskainiko du. Asteartean elkartuko dira, goizeko 10:00etan. Argazkia, artxibokoa.

- Prezioa: matrikula 100 euro + 22 euro hilean.

Musika 0-3 urte

- Irakaslea: Araitx Larrea.

- Maiztasuna: hamabostean behin, ordu bat.
- Eguna: ostiral arratsaldea.
- Prezioa: matrikula 50 euro + 11 euro hilean.

Alboka

- Irakaslea: Teresa Jareño.
- Maiztasuna: astean 30 minutu (bakarka).
- Eguna: irakaslearekin adostuta.
- Prezioa: matrikula 140 euro + 30 euro hilean.

Dultzaina

- Irakaslea: Mikel Ortiz.
- Maiztasuna: astean 30 minutu (bakarka).
- Eguna: irakaslearekin adostuta.
- Prezioa: matrikula 140 euro + 30 euro hilean.

Izen-ematea:

Urriaren 23tik 29ra, zumarte.eus helbidean. Ikastaroak azaroaren 6an hasi eta ekainaren 21ean amaituko dira.

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitartekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiaurreena 6, Usurbil.

ZENDOIA
ENE taberna
Kale Nagusia 35, Usurbil

Zuen
publizitatea
hemen
943 360 321
publizitatea@noaua.eus

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42



Joan Mari Torrealdai Bekaren lehen edizioan Metrokoadroka Sormen Kolektiboaren egitasmoa saritu zuten. Iazko abenduan eman zen aukeraketaren berri. Ezkerrean da Oier Guillan, alkatea eta Jakineko ordezkaria alboan dituela.

"Joan Mari Torrealdairen artxiboa pizgailu bezala baliatu dugu"

OIER GUILLAN METROKOADROKA SORMEN LABORATEGIKO KIDEA

Jakinek eta Usurbilgo Udalak bultzatutako Joan Mari Torrealdai Beka jaso zutenetik hona, 'Artxibo biluzia' izeneko ikerketa eszenikoan murgilduta dabilta Metrokoadroka kolektiboko kideak. Orain arte egin dutena erakutsiko dute igande honetan, Sutegin.

Metrokoadroka Sormen Laborategiaren proposamena gailendu zen Joan Mari Torrealdai Bekaren lehen deialdian. Erabakiaren berri abenduan eman zuten. Iazko abendutik hona zer nolako ibilbidea osatu duzue?

Proiektuak hainbat alderdi ditu. Eszenikoa da bat, baina ez bakarria. Pasa den udaberrian, taldeko kideok mahai gaineko lana egin genuen eta, horrekin batera, proiektuaren aurpegi guztiak eraikitzen hasi ginen.

Bestetik, Joan Mari Torrealdairen inguruko dokumentazio-lanari ekin genion. Elkarrizketa batzuk egin genituen eta material bat pasa

zigituen. Proiektuaren pizgailua bazelako bera atxilotu zutenean idatziz utzi zuen testigantza. "Ordenatuta zegoena desordenatu, armairu eta txoko guztiak miatu, milaka dokumentu eta paper eraman. Begirunerik gabe. Eta zehaztu edo deskribatu gabe. Inpotentziarik handienarekin ikusten nuen nola ari ziren hondatzen nire bizitza eta lan profesionala, nire ikerketak, nire etorkizuna. Biluzik utzi ninduten, ez fisikoki, bai intelektualki".

Artxibo biluzia pieza eszenikoa sortzeko hain zuzen, egun hartan hutsik geratutako karpeta bat irudikatu dugu,

eta antzerkiaren baliabideekin betetzen saiatu gara. Gorpuzte eta ekintzez jantzi nahi dugu biluztasuna.

"ATXILOKETA EGUNEAN HUTSIK GERATU ZEN KARPETA BAT IRUDIKATU DUGU. ANTZERKIAREN BALIABIDEKIN BETETZEN SAIATU GARA"

Zuen egitasmoa ez da antzezlan batera mugatzen. Adar gehiago ere baditu. Pieza eszenikoa sortzeaz gain, sormen-laborategiak ere eskaintzen ari zarete, ezta? Hori da. Idazketa performatiboaren inguruko ikastaro bat eskaintzen ari gara. Performance-a eta idazketa, akzio-literatura... Modu askotara deitu ahal zaio. Tailer hauetan, parte hartzaileak etorkizunean transmititu nahi luketen gai sozial bat edo kulturari loturiko pasarteren bat pizgailu gisa hartzerako gonbidatzen ditugu, tailerrak dokumentazio lanarekin ere zerkusia duelako.

Gasteizko Baratzan egin genuen lehen laborategia, uda-berri partean. Proposamen batzuk eskaintzen ditugu, gure sormen-prozesuaren momentua islatzen dutenak. Trukean, ikasleek asko ematen digute eta asko laguntzen digute aurera egiten.

Bigarren laborategia azaroan egingo dugu Oiartzunen; eta hirugarrena datorren urteko urtarrilean izango da, Usurbilen.

Antezzlana edo pieza eszenikoari dagokionez, egonaldi ezberdinen bitartez ari zarete oztzen.

Udaberri partean pieza eszenikoa izango denaren taldea osatu genuen eta lehen egonaldia Ehuntzen espazioan egin genuen, Oiartzunen. Uztailean egin genuen bigarrena, Bilboko Kampai espazioan.

Gure helburuetako bat ere bazen beste era bateko sarea osatzen duten espazioekin lan egitea. Eta pieza hori eskaintzea. Dagoeneko Gasteizko Baratzan, Oiartzungo Ehuntzen-en eta Bilboko Kampain izan gara. Uda eta gero Lasierrako Azalan egon gara eta laster Lau-dioko Faktoriara hurbilduko gara.

Lehen aipatu duzunez, Torrealdairen testigantza bat izan zen zuen proiektuaren abiapuntua.

→ Ikuspegi eszeniko batetik, guretzat berria zen zerbait ikertzen hasi ginen. Dokumentu batek gorputzean eragin dezakeen oihartzuna, esaldi bakar batean esan beharko bagenu. Edo dokumentu batek piztu dezakeen akzio fisikoa.

Antzerkian ez da pantaila baten aurrean ikertzen. Beste modu batean ikertzen da. Pizgalu horren inguruko jolas eszenikoak topatu, asmatu, harrapatu... egiten ditugu handik eta hemendik. Eta lokalean gertatzen denarekin joaten gara ikerketaren pauso bakoitza osatzen. Inoiz ez dakizu prozedura honek nora eramango zaituen. Horrelako hiru egonaldi egin ditugu eta Usurbilgoa laugarrena izango da.

Beste ardatz bat ere badu zuen egitasmoak. Sortze-prozesu osoa dokumentatzea. Zer dela eta?

Torrealdairen dokumentu batetik abiatzen dira esperientzia hauek guztiak. Eta gure asmoa ere bada sortze-prozesuan gertatzen ari denarekin dokumentu berri bat osatzea. Horretarako hiru artista integratu ditugu gure lan taldean. Danele Sarriugarte idazlea, Maria Elorza zinemagilea eta Nagore Legarreta argazkilaria. Gure lanaren jarraipena egiten ari dira, bakoitza modu ezberdin batean. Eta asmoa da hiru artista horiek jasotzen dutenarekin dokumentu berri bat sortzea.

Eta zer nolako forma hartuko du hiru sortzaile horien lanak?

Ez dugu argi. Hiru sortzaileen esku utzi dugu. Bakoitza modu ezberdin batean ari da prozesuaren jarraipena egiten. Ikusiko dugu zer nolako itxura hartzen duen. Ikerketaren parte ere bada, ikustea dokumentu batek noraino eduki dezakeen oihartzuna, baita dokumentalista edo dokumentuaren testuingurua desagertu denean ere. Zer gertatzen da? Noraino iristen da? Hortik ari gara esploratzen.



'Artxibo biluzia' proiektuak adar asko ditu. Pieza eszenikoa da horietako bat. Igandean, Intza Alkain eta Javier Barandiaran aktoreak Sutegiko oholtzara igoko dira.

Artxibo biluzia hortaz, ez da Torrealdairen biografian oinarritzen.

Ez, eta hori argitzea ere komeni da. Ikerlari eta intelektual handi bat izan zen baina horren atzean zegoen pertsona erreparatu dugu. Elkarrizketa ezberdinak egin ditugu eta denek nabarmendu digute egunerokotasunean transmititzen zuen pasioa. Nola gordetzen zuen guztia, nola artxibatzen zuen dena, transmisio-lana...

Bere etxean izan ginen, eta zer nolako fitxak osatu zituen ikus ahal izan genuen. Hor jabetu ginen ustez objektu hutsalak izan daitezkeenak (objektuak, fitxak) nola eragin dezaketen pertsonengan eta komunitateengan. Eta horiek lapurtzeak edo suntsitzeak zer

**"ELKARRIZKETA
EZBERDINAK EGIN
DITUGU ETA DENEK
NABARMENDU
DIGUTE
TRANSMITITZEN
ZUEN PASIOA"**

nolako mina eragin dezaketen. Sentsazio horretatik abiatu nahi genuen. Dokumentuek zer nolako arrastoa uzten duten ikusteko, ez bakarrik dokumentu horiek biltzen dituenarengan, baizik eta ondorengoenengan. Baita dokumentalista desagertu denean ere. Dokumentuek gorputzengan, pertsonengan sortzen duten eraginean erreparatu nahi izan dugu.

Torrealdairen dimentsio intelektualari buruz asko dago idatzia eta hor ez gara sartu. Gainera hori ez da antzezleon funtzioa. Guk ikuspegi gizatiarrean erreparatu nahi izan dugu. Perspektiba horrek pertsonaz hitz egiteko bide ematen dizu, bizitzaz, heriotzaz, transmisioaz...

**"DOKUMENTUEK
GORPUTZENGAN,
PERTSONENGAN
SORTZEN DUTEN
ERAGINEAN
ERREPARATU NAHI
IZAN DUGU"**

"Ez da Torrealdairi buruzko antzezlan bat"

Igande honetan Sutegin eskainiko duzuen pieza eszenikoak Artxibo biluzia izenburua darama. Bertarutzen denak, zer ikusiko du?

Igandeko emanaldia begira, ohar pare bat ematea komeni da.

Batetik, egiten ari garena ez da Joan Mari Torrealdairi buruzko lan bat. Torrealdairen artxiboa erabili dugu pizgailu bezala, baina gurea ez da Torrealdairi buruzko antzezlan bat izango. Eta hori pieza eszenikoan ere aipatzen dugu. Hortik abiatu gara baina, ikerketa bat den heinean, beste bide batzuk ere hartu ditugu.

Bestetik, igandeko esperimentu bat bezala hartu behar dugu. Joaten direnek argi izan behar dute ez dela estreinaldi bat izango eta ez dela emanaldi amaitu bat izango. Perspektiba hori ezin dugu galdu, bestela baten bat despistatuta edo harrituta ateratu daiteke Sutegitik.

Eraikitzen ari zareten antzezlan baten tripak ezagutuko dituzte.

Prozesuan dagoen lan bat da. Orain arte egindakoa erakutsiko dugu eta segidan solasaldi bat egingo dugu. Horrelakoetan, publikotik jasotzen diren iritziek beti eragiten dute prozesu artistikoan. Eta hori da interesgarria.

Buruntzaldean tipi-tapa ibiltzeko gonbita

Eskualdea eta bertako bideak eta bide bazterrak hobekiago ezagutzeko aukera aparta izango dugu igande honetan. Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna iragarri dute Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo Udalek.

Tokian tokiko mendizaleen elkarteekin batera, eskualdeko bideetan barrena txangoak egiteko gonbita luzatu digute. Ekimena "Buruntzaldeko Ibilbideak" egitasmoaren baitan kokatua dago. Bere bidez, "lehiatzeko ez den eta edozein publiko motarentzat egokia den jarduera fisikoa egiteko eta Buruntzaldea eskualdeko eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera dugu". Besteak beste, "bidezidor eta bideak ditugu (bost ibilbide daude aukeran), landako paisaiatik barrena paseoz gozatzeko, belardiak eta basoak zeharkatuz eta baserri, baseliza, karobi eta, natura nahiz kultura aldetik, interesgarriak diren beste leku batzuetara hurbilduz".

Buruntzaldeko Ibilbideen 15. Eguna

- Eguna: urriak 22, igandea.
- Ordua: 8:00-14:00.
- Kontrolak, anoa eta argibideak eskainiko diren postuak ezarriko dituzte herri guztietan:
- Andoainen eta Urnietan: Udaletxe azpian.
- Lasarte-Orian: San Pedro Elizaren ondoko plazan.
- Usurbilen: Santueneko Zorrotzeko zubi parean eta Aginagako Mapil inguruan.
- Urnietan: udaletxe azpian.
- Bideetako seinaleztapena, udalerrri bakoitzaren kolorean: Andoain urdina, Lasarte-Oria urre zaharra, Urnieta berdea eta Usurbil laranja. Udalerrri guztietan bideei buruzko informazio panelak.



Buruntzaldeko udaletako kirol zerbitzuek antolatzen dute eguna.

Ibilbideak

- Andoain-Lasarte Oria: Buruntza mendia zeharkatuz edo gailurra eginda. Koloreak: urdina eta urre zaharra; 7,9 km. Soilik oinez egin daiteke, eta beharrezkoa da mendiko oinetakoak erabiltzea.
- Andoain-Urnieta: Koloreak, urdina eta berdea; 4,8 km. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.
- Andoain-Usurbil: Andatzatik barrena. Koloreak, urdina eta laranja; 14,9 km. Soilik oinez egin daiteke, eta beharrezkoa da mendiko oinetakoak erabiltzea.
- Lasarte-Oria-Urnieta: Koloreak, urre zaharra eta berdea; 3,9 km. Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.
- Lasarte-Oria-Usurbil-Aginaga: Koloreak, urre zaharra eta laranja; 9 km (Santuenetik barrena Aginagako Mapil in-

gurutaino). Oinez edo bizikletaz egin daiteke, eta beharrezkoa da kirola egiteko oinetakoak erabiltzea.

- Itzuli Handia: Buruntzaldeari 27 kilometroko itzulia, goizeko 8:00etan Lasarte-Oriatik abiatuta, Ostadar S.K.T.-koek antolatuta.

Gailu lagungarria

Navi Ruta aplikazioa, telefono mugikorrarentzat egokia, ibilbideren bat egiterakoan informazioa modu jarraituan jasotzeko; kokapena, jarraitu beharreko norabidea, interes-guneak... Aplikazioa des-

"PARTAIDE BAKOITZAK TXARTEL BAT JASOKO DU, IRTEERAKO HERRIAK ZIGILATUTA"

kargatzeko eta ibilbide bakoitzak aktibatzeke udalerrri bakoitzean jarriarri dauden paneletan jarritako QR kodeak eskaneatu beharko dira. Kode horiek kontrol guneetan ere eskuragarri egongo dira.

Oparia

Partaide bakoitzak txartel bat jasoko du abiatzen den irteera herrian, irteerako herriak zigilatuta. Bi ibilbide eginez gero, eskuoial bat jasoko du oroi-garri moduan. Andoain-Lasarte-Oria eta Andoain-Usurbil ibilbideak osatzen dituztenek oihala jasoko dute baita.

Itzulerarako autobus zerbitzua

12:00etan irtengo da Aginagako Ezpaldiko gasolindegitik eta 14:00etan azkena toki berdinetik. Ibilbideko geltokiak: Aginaga (Ezpaldiko gasolindegia), Usurbilgo San Ignazio biribilgunea, Lasarte-Oriako Dorretzeko biribilgunea, Andoaingo Goikoplaza atzealdea eta Urnietako Kioskoa. Geltokietan jarriko dute autobus ordutegia, bestela hemen duzue:

- Aginaga, Ezpaldiko gasolindegia: 12:00, 13:00, 14:00.
- Usurbil, San Inazioko biribilgunea: 12:07, 13:07, 14:07.
- Lasarte-Oria, Dorretzeko biribilgunea: 12:15, 13:15, 14:15.
- Andoain, Goikoplaza atzealdea: 12:30, 13:30, 14:30.
- Urnieta, Kiosko geltokia: 12:40, 13:40, 14:40.
- Oharra: autobus zerbitzua baliatzeko ibilbidearen abiapuntuan jasotako txartela zigilatua aurkeztu beharko da.

Antolatzaileak:

Buruntzaldeko udaletako kirol zerbitzuak (Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta, Usurbil).

Laguntzaileak:

Andatza Mendi Elkarte (Usurbil), Euskalduna Mendigoizale Elkarte (Andoain), Ostadar S.K.T. mendizaleen saila (Lasarte-Oria), Super Amara eta Eusko Jaurlaritza.



Ezkerretik hasita, Andoni Iturbe sailburuordea, Arantxa Urretabizkaia eta Patxi Zubizarreta idazleak, Joseba Larratxe marrazkilaria eta Bingen Zupiria sailburua.



Iazko Durangoko Azokaren bezperan aurkeztu zuten komikia. Ezkerrean da Joseba Larratxe eta alboan ditu Unai Iturriaga eta Harkaitz Cano gidoigileak.

"Pozgarria da jendea zuregatik pozten dela ikustea"

JOSEBA LARRATXE MARRAZKILARIA

Euskadi Literatura sarien irabazleak aurreko astean eman ziren ezagutzera. Ilustrazioaren modalitatean, Joseba Larratxeren *Ni ez naiz Mikel Laboa* (Elkar) komikia gailendu da. "Bi urte pasa nituen liburua marrazten", saria jaso berritan aitortu zigunez.

Halako errekonozimenduak ez dira egunero jasotzen. Zenbat mezu iritsi zitzaizkizun albistea zabaldu zen egunean?

Egia esan, ez ditut zenbatu baina dezente izan ziren. Whattsapetik hurbilenekoek, eta sare sozialetatik lanbideko lagunak eta hedabideetako ordezkariak. Pozgarria da jendea zuregatik pozten dela ikustea. Horrek are gehiago pozten nau.

Sei eskutara egina dago liburua. Gidoia Harkaitz Cano eta Unai Iturriagarena baita. Zu bezain beste poztuko ziren Harkaitz eta Unai, ezta?

Nik astebete lehenago jaso nuen berri ona eta haiei zuzenean txibatu nien. Beraiek zerikusi handia izan dute lan honetan eta asko poztu ziren. Saria jasoko nuena bazekitela erantzun zidaten biek. Nik ez nuen hain argi, ordea.

Eusko Jaurlaritzak ematen ditu sari hauek baina epaimahai batek erabakitzen du saria nori

eman. Eta zeregin horretan zure gremioko jendea aritu da epaile lanetan. Are pozgarriagoa izango da horrela.

Hain zuzen ere. Sari hau horregatik da hain baliosua. Ogibide bereko kide den batek zure lana errekonozitzea, hori da jaso dezakezun laudoriorik handiena. Formatua den iritzia duelako.

Liburu honen atzean lan ordu asko egongo dira. 'Ni ez naiz Mikel Laboa' liburuko marrazkiak egiteko, zenbat denbora behar izan zenuen?

Komikia kaleratu genuela urtebete izango da laster. Enkargu bat izan zen. EHUko Mikel Laboa Katedrak jarri zuen proiektua martxan, dua bost bat urte. Proiektua guri proposatu eta martxan jarri zen arte, tarte bat pasa zen; Unai, Harkaitz eta hirurok beste proiektu batzuetan sartuta geundelako. Gidoiari buelta dezente eman genizkion eta ildo zehaztea ez zen hain erraza izan. Baina

behin tonuarekin eman genuenean, marrazten hasi eta bi urte pasa nituen marrazten.

Datu kurioso bezala, lehen aldiz apuntatu nituen marrazten pasatako ordu guztiak. Jakin nahi duzu zenbat ordu igaro nituen liburua osatzentzen?

Noski baietz.
2.200 ordu.

Eta ordu horietako asko Kabineneko lau paretan artean igaroko zenituen, ezta?

Bai horixe. Nire azken hiru komiki luzeak Usurbilen ma-

"NI EZ NAIZ MIKEL LABOA (ELKAR) LIBURUAK BERRI ONAK BESTERIK EZ DIZKIGU EKARRI. IRITZI GUZTIAK POSITIBOAK IZAN DIRA"

rraztuak izan direla esan daiteke.

Duela urtebete plazaratu zenuen komikia eta bide zoragarria osatu du. Oihartzun handia izan du eta beste hizkuntza batzuetara ere itzuli dute. Sari honek bultzada berri bat emango dio akaso? Liburu honek pozak eta berri onak besterik ez dizkigu ekarri. Iritzi guztiak positiboak izan dira eta jada bi hizkuntzetara itzulia izan da, gaztelarrera eta katalanera.

Sari honekin akaso, beste bultzadatxo bat eman ahalko diogu. Azaroaren 15ean adibidez, komikiari buruzko erakusketa bat zabalduko dugu Donostian, Okendo kultur etxean. Heriotzaren XV. urteurrena aitzakia harturik, urte bukaerako hilabete horietan egongo da zabalik.

Une honetan, zer ari zara marrazten?

Gaztetxoentzako izango den liburu batentzako marrazkiak egin berri ditut. Oraintxe bukatu dut. Liburuak *Lina Plastilina* (Elkar) du izena eta Izaro Arroita idatzi du. Lehen liburua du eta Durangoko Azokan izango gara gure lana defendatzen.

Martxa honetan, Mikel Laboaren inguruko liburu batzuk ere sinatu beharko dituzu oraindik. Nahi duenari oso gustura sinatuko diot.



Euskal Herriko 800 neska* gazte batu ditu asteburuko Baterajotzeak Usurbilen. NOAUA!

Baterajotze jendetsua egin dute

Euskal Herriko Neska* Gazteek antolaturiko Baterajotze jendetsua egin zuten aurreko asteburuan Usurbilen. Besteak beste, azaroaren 30eko zaintza eskubide kolektiboaren aldeko grebari begirako ekimena izan da.

Antolakuntzaren esanetan, 800 neska* gazte bildu ditu asteburuan Usurbilen egin duten Baterajotzean. Jendetsua izan da denetarik hitzorduak tartekatu dituen topaketa feminista. Komunikazio eta artista feministak, etxebizitza, lodifobia, ingurumena edota azaroaren 30eko greba hizpide izan zituzten solasaldiekin batera ospatu ziren bertso musikatuen saioa edota kontzertu gaua, emakume artisauren azokaz gain.

Eredu propioen alde

Euskal Herriko Neska* Gazteek antolaturiko mobilizazio nagusia duzue ondoko irudiotan. Asteburu honetan Usurbilen egindako Baterajotzearen baitan, herriko kaleetan barrena eginiko manifestaziokoak hain zuzen. Munalurra, Artzabal

ingurua, Kale Nagusia eta San Inazio kalea zeharkatu zituen. Oiaro kiroldegian amaitu zuten ehunka lagun batu zituen ekitaldi batekin.

Auzitan jarri zuten egungo bizi eredia. Bizitza desiragarriarekin baino "distopiarekin zerikusi handiagoa dauka" nabarmendu zuten. Hain zuzen, ziotenez, "azkar eta antsietatez bizi dugu oraina eta etorkizunean pentsatzen igarotzen ditugu orduak; helduak izango garenean zer izango garen, nola biziko garen. Bizi dugun ezegonkortasuna gatzetasunaren ezaugarri bezala ulertu eta izan enprendedore esaten digute eta horrek etorkizuneko bizitza utopikora pausoak ematen laguntzen digula ulertzen dugu; etxe bat, familia, kotxea...". Baina eredu horrek "prekarizatu egiten

gaitu" modu ezberdinetan. Horregatik, "eredu propioak" sortzearen alde egin zuten, "bizitzeko, ikasteko, borrokan eta borroka molde berrietarako, harremantzeko, eztabaida berriak mahaigaineratzeko, gozatzeko, aisialdirako, deskantsurako".

Utopiak eraikitzen

Bide horretan, antolatuak daudela gogorarazi zuten, Usurbilgo Baterajotzeak ere erakutsi duen moduan. "Baina ez dezagun ahaztu bide hori marraztu eta aurrera

"EZ DA ERRAZA IZANGO BAINA BADUGU NORABIDEA"

egiten dutenak geu garela, geure utopietarantz bidea eginda herri eta auzoetan alternatibak sortzen jarraitzea da, aliantza feministak jarraitzea, jaietan gune ez mistoak sortzea, familiako afari batean zure osabari isiltzeko esatea, gazte asanbladako gizoni aurre egitea. Utopiak eraikitzea autodefentsa feminista praktikara eramatea da, gure herrian feminismoz nola eraldatu pentsatzea, eta bai, utopiak eraikitzea, asteburu honetan Usurbilen 800 feminista gatzetik gora elkartzea da. Azaroaren 30ean egingo den greba feminista orokorra, gatzetasunetik pentsatu eta antolatzea ere", adierazi zuten bertaraturikoen txalo artean.

Feminismoaren bidetik


Ate joka datorren azaroaren 30eko zaintza eskubide kolektiboaren aldeko greba orokorarekin bat egin zuten aipatu moduan. Etorkizunetarako bidea, "ez da erraza izango baina badugu norabidea eta geu gara lanabes. Jarrai dezagun feminismoan antolatu eta borrokatzen, gora borroka feminista!", aldarrikatuz amaitu zuten Oiaro kiroldegiko agerraldia.



Euripean hasi zuten Baterajotzeko mobilizazio nagusia. NOAUA!



Jendetsua izan zen herrian barrena egin zuten manifestazioa. NOAUA!




Oiardo kirolegiko ekitaldiarekin borobildu zuten manifestazioa. NOAUA!




Emakume artisauen eta sortzaileen goiza izan zen igandekoa. NOAUA!



Kaxkoko kaleak zeharkatu zituen Baterajotzeko mobilizazioak. NOAUA!



Feminismoan antolatu eta borrokatzeko deia egin zuten. NOAUA!



Baterajotzeko manifestazioan plazaratu zuten pankartetako bat. NOAUA!



"Utopiak lehertzeraino!" aldarriaren bueltan batu ziren manifestariak. NOAUA!

Gure Pakeak 80 urte bete dituzten bazkideak omen ditu

Argazki honetan, aurten 80 urte bete dituzten Gure Pakea elkarteko bazkideak ageri dira. Urriaren 15ean omendu zituzten, Aginaga sagardotegian eginiko bazkari baten bitartez. Oroigarri bana jaso zuten gainera, Agurtzane Solaberrieta alkatearen eskutik.

Alkateak berak sare sozialetan zabaldu zuenez, "plazera izan da aurten 80 urte bete dituzten Gure Pakea jubilatuko elkarteko bazkideak omentzeko bazkarian parte hartzea. Zenbat zor diegun herrikide hauei! Bejondeizuela".



Aginaga sagardotegian egin zuten ospakizuna. Oroigarri bana jaso zuten alkatearen eskutik. ARGAZKIA: KARRERIUS



Afarirako txartelak alde aurretik eskuratu behar dira Txiribogan.

2. Akerra Eguna Txokoalden

Akerra Gaztetxearen eskutik, iaz Txokoaldeko frontoian egin zen ospakizun jendetsuaren bigarren edizioa larunbat gau honetan; afari, bertso saio eta kontzertu gaua. Hemen xehe-tasunak:

Urriak 21, larunbata

Txokoaldeko frontoian:

• 21:30 Herri afaria. Txartelak ostegunera arte Txiribogan.

• 23:00 Bertso saioa: Harri Agirresarobe, Hodei Munduate, Maide Garmendia bertsolarien eskutik. Gai jartzailea: Felix.

• Ondoren, kontzertuak: Armosu, Itzek, Pisoo & OPH, Dj Arroltze ta Zingarra taldeen eskutik.

Antolatzailea:

Akerra Gaztetxea.



Sarrerak astelehenean jarri zituzten salgai, gurezirkua.eus web orrialdean.

Gure Zirkuak Usurbilen agurtuko du bira

Seigarren bira arrakastatsua Usurbilen amaituko duela iragarri du Gure Zirkuak. Bira honen azken geltokia Urbil pareko aparkalekua izango dute. Azaroaren 3tik 18ra 12 emanaldi iragarri dituzte. Ikuskizunoz gozatzeko sarrerak eta xehetasun gehiago gurezirkua.eus atarian jaso ditzakezue. Egun eta orduotarako programatu dituzte ikuskizunok:

- Azaroak 3, ostirala: 19:00.
- Azaroak 4, larunbata: 16:30/19:00.
- Azaroak 5, igandea: 17:00.
- Azaroak 10, ostirala: 19:00.
- Azaroak 11, larunbata: 16:30/19:00.
- Azaroak 12, igandea: 12:00/17:00.
- Azaroak 17, ostirala: 19:00.
- Azaroak 18, larunbata: 16:30/19:00.



Carola Giraudok sortu du "Haurren aurrean, helduok heldu" kanpainarako irudia. NOAUA!

Helduak euskaraz, haurren aurrean

Hastear da "haurren aurrean, helduok heldu" Euskaltzaleen Topagunearen Euskal Herri mailako ekimena, helduen euskararen erabilera eta jarreraren eragiteko. Usurbilen ere 30 gurasoko "xaxatzaile" taldea osatu dute; tartean da, kanpainako irudiaren egile Carola Giraudok.

"Ari eta ari, ez eten hari! Hark niri, nik zuri, euskara opari". Ander Zuloaga herrikidearen hitzak dira honako hauek. Hitz hauei ondoko argazkiko irudia sortu dio semearekin ageri den Carola Giraudok. Usurbilgo familia honek jarri dio hitza eta iruditeria, urriaren 19tik 29ra "Haurren aurrean, helduok heldu" NOAUA! kide duen Euskaltzaleen Topaguneak antolatu duen Euskal Herri mailako Usurbilgo ekimenari. Modu horretan, bereganatu du Usurbilek, helduen artean euskararen erabilera eragin eta "umee-kiko hizkuntza eredugarritasuna" bultzatzea xede duen egitasmo hau. Udalerrri honetara, Udarregi ikastolaren eskutik iritsi da. Hizkuntza Proiektuko taldeak (HIZPRO) bideratu ditu prestaketa lanak

Udalarekin batera. "Ekimenak helduak eredu izatea sustatu nahi du bai erabilera, baita jarreraren ere, saiakeran. Ariketa hau hizkuntzaren aurrean helduok hartzen dugun jarraera ere zer garrantzitsua den jabetzeko da batez ere", azaldu dio NOAUA!ri HIZPRO taldeko kide Ursula Zubimendik.

"Haria ez da eten"

Ikastola barruko HH eta LH 3. maila arteko haur eta gaztetxoek 30eko guraso taldea osatu dute. Xaxatzaile lanak egingo dituzte haien inguruan, ariketa sozial honek iraun artean. Haietako bat da hain zuzen, Carola, ekimen honen irudiaren sortzailea. Berari egitasmo honetan parte hartzea proposatu zionean, "berehala esan zidan, baina nik

ez dakit euskaraz ondo. Aldiz, helburua ez da hori. Eredugarria da, etorkin eta euskaldun berri gisa eta egiten duen saiakera horregatik guztiagatik oso aproposa", dio HIZPROko kideak. Aipatu moduan, Giraudok parte hartzeko baiezkoa eman zuen. "Ez dago dena egina", gogorara-razi digu. Bere esperientzia pertsonaletik, euskaraz ahaldunduz ari den honetan, argi dio, "beti bizi izan dut barneratzen ari naizen hizkuntza eta kultura hau opari gisa. Inoiz ez diot utziko naizena

"ARI ETA ARI, EZ ETEN HARI! HARK NIRI, NIK ZURI, EUSKARA OPARI!"

izateari, baina, azkenean, nik neure buruari gehitzen diodan zerbait da. Beti hartu izan dut positiboki euskara ikastea". Eta horretara dator, Giraudok sortu duen bihotza, haria eta H hizkiak daramatzan irudia. "Maitasunetik belaunaldiz belaunaldi transmititu den etenik gabeko haria", bere esanetan, "hizkuntza bat ikastearen beharretik haratago doana". Oparia. Udarregi ikastolako HIZPRO taldeko kideak gaineratu duenez, "haurrak eta helduak lotzen dituen arren, datorren edonori lotzen dion haria". Ander Zuloagak sortu duen mezua ere ildo beretik doa. "Haria ez da eten, maite gintuztelako eman ziguten oparia, maite ditugulako emango diegu, seme-alabei, ilobei, bilobei, lagunei... Helduak heldu haurren aurrean".

Bi ekintza

Abiatzear den ekimen hau "gurasoak eta umeak elkartzen diren inguru informaletan" bideratu nahi da nagusiki; alegia, parkeetan, eskola atarrietan, plazan, etxean... Ariketa sozial honen parte hartzaile izanez gero kontuan hartu; batetik, "euskaraz ondo moldatzen ez bazara, lehen hitza euskaraz egin, euskara ulertzen dutenei" eta ulertzen dutenekin euskarari eutsi baita haiek erdarara jotzen badute ere; aldiz, euskara ulertu bai baina mintzatzeko zailtasunak izanez gero, "gonbidatu zure ingurukoak euskaraz aritu edota jarraitu dezaten zurekin".

Udarregi ikastolaren HIZPRO taldeak bi ekintza antolatu ditu ariketa sozial honek iraun artean.

Batetik, urriaren 20an 17:00etan hasita Mikel Laboa plazan, "Jokai euskal mitologiaren inspiratutako jolas kooperatiboak eta txokolate jatea".

Hilaren 27an, bestalde, 16:30etan hasita euskarazko liburuen truke azoka Agerialden.



Filosofatzeko esperientzietan parte hartutakoa den Udarregi ikastolako LH6ko gazte taldea. NOAUA!

Hausnarketa asketik, kontzienteago bizitzen

Usurbilgo Oinherri herri hezitzaileen saretik eta Jakinmin elkartearen eskutik, iazko arrakasta ikusita, ikasturte honetan ere filosofatzeko eremua eskainiko diete belaunaldi guztietako herrikideei. Lehenengo saioa, urriaren 27an, LH6ko gaztetxoentzat izango da.

Lerrootako elkarrizketan hitza hartu orduko hasi dira filosofatzen; galderak egin, argudioekin erantzunak trukatzeko eta erantzunetatik galdera berriak sortu zaizkie. Ez du amaierarik eta gustura ari dira hausnarketa kolektibo eta askean, nahi duena hitza hartzen elkarrizketan eta elkar entzuten. "Egunak ahal dituzu igaro filosofatzen eta lasai, ez zara aspertuko", adierazi digu ondoko argazkian duzuen taldeak, NOAUA!ra etorri diren Udarregi ikastolako LH 6. mailako kideek. Aurreko ikasturtean egin bezala, datozen asteetan Usurbilen gaztetxo nahiz helduentzat antolatuta diren saioetara gonbidatu gaituzte.

Euskal Herriko udalerririk gehiagorekin batera hain zuzen, Usurbil kide duen Oinherri herri hezitzaileen sareak

eta praktika filosofikoa hedatzen eta Haur Filosofia eremuan oinarritutako berrikuntza pedagogikoa sustatzen diharduen Jakinmin elkarteak hausnarketa librerako, elkarrizketarako gunea eskainiko dute hurrengo asteotan. Lehenengo saioa, LH6koentzat izango da, urriaren 27an, 18:30-20:00 artean Potxoenean. Hurrengo saioak laster iragarriko dituzte, tartean helduenak. "Edonori zuzendua dago. Ez da

"EDONORI ZUZENDUA DAGO. EZ DA FILOSOFIAZ JAKIN BEHAR. GUK FILOSOFATU EGITEN DUGU"

filosofiaz jakin behar. Guk filosofatu egiten dugu", adierazi digu LH6koekin batera NOAUA!ra etorri den Jakinmin elkartearen ordezkari Garazi Aizpuruak. Hala gogorarazi digu baita Usurbilgo Oinherri taldeko kide Asier Huegunek ere. "Berezkoa dugu galderak egin eta hausnartzea". Saio hauetan horretan dihardute.

Bideratzaileak dituzten hitzorduak dira, metodologia baten arabera jorratzen dira.

"HEMEN ADOSTASUNA EZ DA GARRANTZITSUENA, ARRAZOITZEN JAKITEA BAIZIK"

Irudi edo objektu bat baliatzen dute pizgarri gisa eta horren bueltan zenbait galdera proposatzen dituzte, guztion bizitzetako gai ezberdinei lotutakoak. Hor hasten da, etenik ez duen erantzun eta galdera gehiagoren soka luzea. "Galdera horietatik abiatuz elkarrizketatu egiten da", azaldu digu Jakinmin elkartearen ordezkariak.

Adostasuna baino, arrazoitzea garrantzitsuagoa
Bertaratzen direnen parte hartzea, askea da. "Batzuk hitza hartzen dute, besteak entzutera datoz", adierazi digu Huegunek. Parte hartze modua, beraz, askea da eta ideien elkar trukean ere bada argi utzi nahi duten kontu bat. "Ideiak dira zalantzan jartzen direnak, ez inoiz pertsonak. Pertsona da errespetatzen dena, agian ideia da auzitan jartzen dena", nabarmendu du Aizpuruak. Ildo horretan zehaztu duenez, "askotan esaten da ez nago zurekin ados, baina ez da zurekin, zuk adierazitako ideiarekin baizik".

Talde mailan egiten den hausnarketak ez du adostasuna helburu. "Hemen adostasuna ez da garrantzitsuena, arrazoitzen jakitea baizik, zergatiak bilatu, nork bere argudioak eman, besteak entzutea", Jakinmin elkartearen gaineratu duenez. Bide horretan, gerta liteke, saio hasieran norberak duen ikuspegia sendotzea edo auzitan jarri eta aldaraztea. Ildo horretan, sarritan garrantzitsuena emaitzetan edo erantzunetan egon daitekeela uste izan arren, ez da hala. "Agian erantzunetan baino galderetan dago gakoa", Aizpuruak nabarmendu duenez.

Hausnarketak amaierarik ez
Jardun horretan trebatzean datza filosofatzeak, egunero koan ontzat ematen dugun horri buruz galdetzea. "Galdera da bidea irekitzen duena.

→ Horretarako daude bideratzaileak, galdera horrekin asmatzeko, errespetuzko ingurunea bermatzeko. Kolektiboki laguntzen du zure galderaren bidez besteena entzuten, zu ere sakontzen zoaz. Saioa amaituta, galdera gehiagorekin joaten zara, baina bilkuran zehar, zure pentsamendua sakontzen joan da modu kolektiboan. Ikusten duzu zure ikuspegia bestearenaren kontrajarria izan daitekeela, baina bestearenak baduela lehen pentsatzen ez zenuen zerbait edo ekarpenen bat. Hori oso aberatsa da", azaldu du Huegunek.

Izan ere, hausnarketa prozesu honek ez du amaierarik izaten. Saio hauei amaiera ematen zaie "baina elkarrizketa ez dela bukatu esaten diet beti", Aizpuruaren esanetan.

"Mugiarazten gaituzten galderak izan behar dute"

Ezohiko ariketa da, izan ere gizakiok berezkoa dugun gaitasun honi ez diogu sarritan tarterik ematen egunerokoan. "Ez dugu hartzen denbora daramagun bizi erritmoagatik eta askotan gauzak zalantzan jartzeak eragiten digun deserosotasunagatik", Jakinmin-eko kideak adierazi duenez. Aldiz, gogorarazten digutenez, oso onuragarria da jendartean filosofatzea. "Batez ere, hausnarketak geure bizitza kontzienteki bizitzea eragiten du, jabetzea gauzak hauek ditudala neure inguruan, zertan ari naizen, zer aukeratzetan dudana. Haurtzaroan kontzientzia hori hartzen joateak helduak garenerako asko laguntzen du", Jakinmin elkarteko kidearen ustez.

Argi diote, "beti dago zerbait eranstea", izan ere, "beti daude ikuspegi ezberdinak". Denetarik iritziek ez dute zertan adostasunaren bueltan bat egin beharrik, baina LH6ko ikasleok azaldu digutenez, "bi iritzi ezberdin elkarrekin uztartu daitezke. Batek modu batera pentsa dezake, besteak



LH6koentzako izango da filosofatzeko lehenengo saioa. NOAUA!

beste era batean. Ez du bietaiko batek arrazoia. Bi iritziak izan daitezke zuzenak agian".

Edo gehiagorenak. Dinamizazio lanetan aritua da Huegun. Erantzun guztiak bai, balekoak izan daitezke, baina garrantzitsuena dinamika hauetan proposatzen diren galderak dira eta hauek ez, edozein galdera ez da filosofatzeko modukoa. "Mugiarazten gaituzten galderak izan behar dute. Galdera oro ez da filosofikoa". Ildo beretik, Aizpuruak nabarmendu duenez, "sakontzeko galderak izan behar dute".

"Eta hurrek gurasoak zigortuko balituzte?"

Hala atera izan dira, denok zeresana dugun gaiei buruzko hausnarketak; laguntasuna, maitasuna, zigorrak zer diren, zer den normala izatea eta zer ez. "Ez dugu denbora hartzen,

esaterako, laguntasunaz hitz egiteko; zer den laguna izatea, zer den lagun on edo txar bat. Berdina da ezagun bat edo lagun bat izatea? Presente ditugun gaiak dira baina askotan ez da horri buruz hausnartzeko denbora hori hartzen", Aizpuruaren esanetan.

Aurreko ikasturteko saioan Oinherriko kideak zioenez, "hurrekin sekulako galderak atera ziren; zer den normala izatea, edo zer ez. Zigorraren gaia aipatu genien, zergatik zigortu edo ez. Justiziaren gaia zegoen atzean". Laguntasuna ere hizpide gisa hartu izan dute edota gurasotasuna. LH-5koekin eginiko saio batean ateran zen galderetako bat izan zen, "eta hurrek gurasoak zigortuko balituzte? Haur batzuk hori ezinezkotzat jotzen zuten, baina astebetetz probatuko bagenu? galdetzen zuen batek". Bistan denez, Huegun-

"KOLEKTIBOKI LAGUNTZEN DU ZURE GALDERAREN BIDEZ BESTEENA ENTZUTEN, ZU ERE SAKONTZEN ZOAZ"

"MUGIARAZTEN GAITUZTEN GALDERAK IZAN BEHAR DUTE. GALDERA ORO EZ DA FILOSOFIKOA"

nen esanetan, norbera bere ohiko posizionamendutik ateratzeko oso lagungarriak dira saio hauek, "beste toki batera joateko, erantzunen mailan aukerak zabaltzeko, ikuspegia aldatzeko". Argi diote, haurren artean filosofatzeko bideratzen duten bilgune hau "gogoeta eta pentsamendu kritikoa garatzeko sekulako bitartekoa" da.

"Dena ahal da zalantzan jarri"

Arrakasta itzela izan dute ekimenok beste herri batzuetan. Usurbilen Oinherri taldea osatu zenean, esperientzia hauen berri jaso eta Usurbila egitasmo hau ekarri nahi izan zuten. "Jakinmin elkartekokin jarri ginen harremanetan eta Oinherriko zenbait kide formatu ginen", azaldu digu Huegunek. Aipatu moduan, aurreko ikasturtean "modu esperimentalean jarri genuen martxan egitasmoa Usurbilen". Eraitza begi bistakoa izan da, "arrakasta izan zuen. Hemen sendotzeko bidean da", aurrekusi du Oinherriren ordezkariak.

Lagungarria dela ezin auzitan jarri, ikusi besterik ez da bestela NOAUA'n batu den LH6ko taldea. Esperientzia hauetan parte hartu eta zer ikasia izan dute baita. "Dena ahal da zalantzan jarri. Hasieran zerbait oso segurutzat jo arren, norbaitek beste zerbait esan eta zalantzan jartzen duzu", adierazi digute. Filosofatzea lagunartera zabaldu dutela ere aipatu digute. "Lagunartean normalean asko hitz egiten dugu", adierazi digute.

Eremu horretan aldaketarik eragin ote duen galdetuta, baietz erantzun digute. "Noizbehinka beste batzuk hitz egitean zergatik ez?" galdetzea esaterako. Galdera horrek beste batzuei bide ematen die. "Galderen eta zalantzen bitartez izugarri ikasi daiteke, beste era batera. Agian ez gauden horretara ohituak".



Urte berrirako ordenantza fiskaletan hainbat aldaketa iragarri ditu udal gobernu taldeak. NOAUA!

%2,9ko igoera 2024ko ordenantza fiskaletan

Azken urteotako ildoari jarraiki, 2024ko ordenantza fiskalei Kontsumo Prezioen Indizeak (KPI) 2022ko abuztutik 2023ko irailera Gipuzkoan izandako %2,9ko igoera hasieraz aplikatzea onartu zuten gehiengo osoz (EHBildu eta EAJ alde, PSE aurka) urriaren 10eko osoko bilkuran.

Helburua da, nabarmendu dutenez, "justizia sozialaren eta trantsizio ekosozialaren zerbitzura jartzea udalaren ahalmenen arabera gure zerga-politika, eta fiskalitate justuago eta berdeago baterako bidean sakontzea. Halaber, helburua ere bada herritarrei ahalik eta zerbitzu eta eskaintza publikorik onenak eskaintzea, baina zerbitzuen gastu-sarreraren finantza oreka ahal dela bermatuz".

Zenbait aldaketa iragarri dituzte hasieraz onarturiko ordenantza fiskal hauetan. Batetik, ura eta estolderia tasari dagokionean, Gipuzkoako udalerrri gehienetan dagoen eta Usurbilgo kasuan Loiola-ko araztegiara doazen ur zikinaren arazketari lotutako tasa txertatuko dute (urtean 10 euro inguru garestiago). Halere,

inguruotako merkeena izaten segiko du. Bigarren aldaketa, hondakinen tasari lotutakoa da, "EAJk eginiko ekarpena" Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak azaldu zuenez. Hondakinen gaikako bilketari lotutako gastu eta diru-sarrerak orekatzeko, aurrerantzean, hondakinen isurketa-gatik kanonaren kontzeptua txertatuko zaio dagoeneko errefusaren zatiari aplikatzen zaion sortzez besteko ordainketa sistemari. Justiziazko kontzeptutzat jotzen du udal gobernu taldeak, "gehiago kutsatzen duenak gehiago ordaintzea". Fakturan, gutxi gorabehera ontzi grisa hilean behinateratzen duenak, urtean 6 euro inguruko igoera nabarmenduko du.

Aldaketa gehiago. Terrazei lotutako tasan igoerarik ez

aplikatzea erabaki dute, pandemia garaian eremuok handitzea baimendu ostean, gai honen inguruan egin nahi duten lanketa amaitu artean.

Kiroldegiko abonua eta ikastaroei, bestalde, Buruntzaldea mailan adostutako %4ko igoera aplikatuko zaie. Udajolasen 2024ko kuota 90 eurotik 105 eurora (familia ugarien kasuan 90 euro) garestituko da. Haur Eskolaren doakotasunaren bidean, familiek ordaindu beharreko

**TERRAZEI
LOTUTAKO
DATORREN URTEKO
TASAN, IGOERARIK
EZ APLIKATZEA
ERABAKI DUTE**

kuoten bi herenak Udalak bere gain hartzea erabaki zuen iragan udaberrian.

Azken aldaketa; hobari berri bat, lehendik zabaldua zuen errentaren arabeko %50-90 arteko eskaintza. Egundak 200 familia dira onuradunak. 2024ko Ondasun Higiezin Zergan %40ko hobaria aplikatuko diote, energia aprobetxamendurako inbertsioa egiten dutenei, inbertsioa egindako urtean soilik. "Herritarrei zerbitzu eta eskaintza publiko guztietarako sarbidea erraztu eta bermatu nahi zaie, edozein dela ere bere errenta maila, eta modu horretan, usurbildarron aukera berdintasuna bermatu", azaldu zuten udal gobernu taldeak.

EAJ alde, PSE aurka

"Erantzukizun osoz hartutako erabaki" gisa definitu zuen udal gobernu taldearen proposamena EAJren bozeramaile Xabier Otxoak. Bat egin zuen EHBilduk iragarritako KPIaren igoerarekin. PSE-ren udal ordezkari Petri Romero proposamenaren aurka agertu zen. EH Bilduk proposatutako igoerak ahalegin handia eskatzen diela herritarrei eta ez dagoela justifikatuta zioen. "Guretzat ekintza politikoa ez da ulertzen, ez badago jendearen bizitza hobetzera bideratuta, kalitatezko zerbitzu publikoak ematera, justizia sozialean sakontzen dutenak, kalitatezko zerbitzu publikoak beharrezkoagoak baitira gutxien duenarentzat. Aberastasuna birbanatzeko modu bakarra da, eta egoera ahulnetan dauden herritarrei bestela oso zaila izango liezaieke zerbitzuak jasotzeko aukera izatea. Bide horretan talde sozialista beti aurkituko gaituzue", adierazi zuen. Ulertezintzat jo zituzten adierazpenok udal gobernu taldeak, harridura agertzearekin batera, PSEren udal ordezkariaren azken adierazpen hauekin guttiz bat egiten duelako baita EHBilduk.



Jose Ignacio Asensio, Fridays For Future mugimenduak klimaren alde 2019an Donostian deitutako mobilizazioan. NOAUA!

Jose Ignacio Asensio, judizialki ikertua

GHK-ren presidente, Foru Aldundiko jasangarritasun arloko diputatu eta lehen ahaldu nagusi orde Jose Ignacio Asensio ikertua izaten ari da "Gipuzkoako Fiskaltzaren salaketa" bat tarteko, "ingurumenaren aurkako delitua" eta "dokumentuak faltsutzea" egotzita.

GHK-ren presidente eta jasangarritasun arloko foru diputatu Jose Ignacio Asensio ikertua izaten ari dela berri eman du GuraSOsek. "Donostiako Instrukzioko 5 zenbakiko Epaitegiak irekitako eginbide batzuetan ikertua izaten ari da, Gipuzkoako Fiskaltzaren salaketa baten ondorioz. Izan ere, salaketa horrek "ingurumenaren aurkako delitua" eta "dokumentuak faltsutzea" egotzi dio". Asensioz gain, "erantzule penal" gisa agertzen dira, halaber, proiektuen zuzendaria, "[GHK] ingurumen-organoari bidalitako dokumentazioaren sinatzailea, hondakin kudeaketaren arloko produktu eta prozesuko ingeniaria eta aipatutako partzuergoko ekoizpen, mantentze eta laborategiko arduraduna, baita hondakinak

kudeatzeko enpresa bateko arduradun bat ere".

Susmoak

Hau guztia atzeragotik dator. "Fiskaltzaren idazkiak "epaitegira salaketa bidaltzea" agintzen du, eta GuraSOsek ekainaren 9an aurkeztutako beste idazki batean du jatorria. Idazkiaren arabera, "Zubietako udal-hondakinaren Balorazio Energetikorako Plantak hondakin arriskutsuak sortu izan zituen 2022an, eta ingurumen-organoak ez du baimentzen hondakin horiek sortzea" [GHK]. [Baimenik gabeko hondakin arriskutsuak sortzea] "praktika hori ezkutatzeko", GHK-k hondakin horiek Ingurumena Zaintzeko Programaren Memorian sartuko zituzkeen, hondakin kode bat eta kontzeptu oker bat emanez,

"modu kontzientean". Era berean, "hondakin horien zati bat Artaxoan (Nafarroa) egotza duen Encofert Sansoain S.L. enpresari tratatzea eskatu zitzaion, nekazaritzako ongarrietarako konpostajearen aritzen baita, hondakin arriskutsuak kudeatzeko baimenik gabe". Ondorioz, "salaketaren arabera, arestian deskribatutako egitateak ingurumenaren aurkako delitua izan daitezke, Zigor Kodearen 326.1 artikuluan tipifikatua eta zigortua, baita 390. artikuluan tipifika-

GURASO SEK EKAINAREN 9AN AURKEZTUTAKO IDAZKI BATEAN DU JATORRIA

tutako dokumentuak faltsutzeko delitua ere". GuraSOsen esanetan, Fiskaltzaren aburuz oraindik horretarako "goizegi" bada ere, GuraSOsen esanetan, "susmoen aurrean gaudela balioesten dugu eta susmo horiek ikusita" beharrezkoa da polizia-ikerketak... baztertu gabe prozesu-une aurreratuago batean ikertuztat jo behar direla GuraSOsek aipatzen duen ingurumen-organoko kideak "[Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetza]". Honenbestez, GuraSOsek ondorioztatu duenez, "akusazio publikoak" Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Sailburuordetzara zabaldu daitezke. "Hondakinaren lekualdaketa oro instantzia horren kontrolpean egingo litzateke, eta hondakinaren onarpenari, kudeaketari eta garraioari buruzko adierazpen guztiak jakinaraziko litzazkioke, bai jatorrian, bai helmugako instalazioetan". "Hala ere - adierazi du -, Sailburuordetzak ez zuen espedienterik hasi Ingurumen Baimen Integratuaren (IBB) ez-betetze nabarmenagatik (baimendu gabeko funtsezko aldaketa), Legeak arau- hauste larritzat tipifikatuta baitago, eta [GHK] titularrari ez zion eskatu baimenik gabeko hondakinak sortu, biltegitatu eta garraiatzeari uko egiteko, Ingurumen Baimen Bateratuaren funtsezko aldaketarik egon ezean, eta, antza denez, ez zuen ikuskapen-jarduerarik egingo".

Hortik ekarri du gogora GuraSOsek pasa den urriaren 6an izan zen deklarazio hartzea. "Epaitegian agertu behar izan zuen Hipolito Bilbao Intxaurragak, Eusko Jaurlaritzako ingurumen-baimenen arduradunak, betiere Zubietako erraustegiaren instalazioei eta haren funtzionamenduari dagokienez. Instalazio horretan eragindako kutsadura jakin batzuen jatorrian egon daitezkeen ez-betetze larriei, "ezikusiarrena egitea" egotzen zaio".



Ibilbide gidatuek bisitari asko erakarri dituzte aurten.

“Usurbil Museo Irekia”, Ondarearen Europako Jardunaldietan

Beste bi bisita iragarri dira: igande honetan, bata; urriaren 29a igandea, bestea. Izena eman behar da alde z aurretik.

Datozen bi igandeotako, urriaren 22ko eta 29ko “Usurbil Museo Irekia” bisita gidatuak Ondarearen Europako Jardunaldien baitan eskainiko dira. Herritarren eta haien ondarearen arteko hartueman estutzeko antolatzen ditu Europako Kontseiluak. Ekimenon bidez, Europako kultura aberastasunaren eta

aniztasunaren bueltan sensibilizatu nahi dituzte herritarrak, ondarea bera babestu

HELBURUETAKO BAT DA HERRI ONDAREA BABESTEA

edota kulturarteko eztabaida bultzatzea.

Edonora begiratu eta artelan bat begibistan

Iraila eta urrirako antolatutako jardunaldion bueltan hamaika ekimen antolatu dira Gipuzkoan; tartean, aipatu moduan, "Usurbil Museo Irekia" ekimena txertatu dute programa zabal horretan. "Usurbilera etortzen den edonork bere koloretan murgiltzea eta paseatzea nahikoa izango du edonora begiratu eta artelan bat aurkitzeko. Zumetaren mural zeramikoak aparteko aipamena merezi du gure eskaintzan, izan ere, Euskal Herriko artelanik esanguratsuena artean leku propioa baitu. 2023a urte berezia da muralak 50 urte bete baititu. Astebururo murala eta kaleetako beste artelanak 'Museo Irekia' bisita gidatuan azaltzen ditugu", diote jardunaldiatako egitarauko azalpenek.

Izen-ematea aurrez

Gogoan izan, bisita hauetarako ere izena aurrez eman behar da ohi bezala, 650usurbilbizi.eus atarian. Gehienez 14 laguneko taldeak osatuko dira.

Pirritx, Porrotx eta Marimotots, azaroaren 5ean Oiardo kiroldegian

Bueltan datoz Pirritx, Porrotx eta Marimotots Usurbila. Azaroaren 5ean izango da, igande goizez, 11:30ean Oiardo kiroldegian. Urteurren bereziari lotutako ikuskizuna plaza-ratuko dute Oiardo kiroldegian, taldearen 35. urtemugari lotutakoa hain zuzen; "Urteak bete, abenturak bizi!".

Sarrerak, eskuragarri

Adi, NOAUA! Kultur Elkarteak eta Usurbilgo Udalak antolatutako emanaldirako lekua hartzen joan zaitezke. Sarrerak usurbilkultura.eus plataforman eskura ditzakezue. "35 urte beteko ditugu pailazo taldeak eta horren ospakizuna izango da saioa. Sudurgorrian bizitzan lagun egin ditugun hainbat etorriko dira bisitan ospakizunean parte hartzera. Kantua, dantza eta denon parte-hartzea ez da faltako, ezta tarta erraldoia ere... urteak betetzea garrantzitsua bada, are gehiago abenturak bizitzea!... Eta hori izango da gure ospakizuna, beste abentura bat bizitzea!".

Eskola Eguna ospatuko dute larunbat honetan Aginagan

Aginagako eskolako komunitatea bilduko duen jai eguna antolatu du San Praixku guraso elkarteak larunbat honetarako, ekintza hauen bueltan:

Urriak 21, larunbata

- 10:00etan hasita haurrentzako jolasak.
- 14:00ak aldera bazkaria.
- 17:00 Ttipikarekin dantza emanaldia.
- Antolatzailea: San Praixku guraso elkarteak.



Adin guztietakoak dira gaitz hau pairatzen dutenak.

Ostomizatuta daudenentzako komuna Urbilen

Ostomizatutako pertsonentzako komun bat egokitu dute Urbilen. Honiesker, euren behar

fisiologikoak poltsa batean egin behar dutenek espazio seguru, eroso eta intimu bat izango dute.

Ostomizatutako Pertsonen Elkartearen Federazioaren arabera, EAEn 3.000 pertsona baino gehiago ostomiarekin bizi dira egunero. Adin guztietakoak dira gaitz hau pairatzen dutenak.

Leyre Lobato Urbilgo gerentearen esanetan, "Urbilera bisitan etortzen diren gipuzkoar ostomizatuei lasaitasun handia emango die erosketak egiteko edo zinemara joateko garaian".

Inaugurazio ekitaldian Minbiziaren Aurka Gipuzkoan Elkarteak, Crohn eta Colitis Ulcerosaren Elkarteak eta Donostiako Unibertsitate Ospitaleko ostomia unitatearen sustatzaileak elkartu ziren.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Bi logelako pisu bila nabil. Presazkoa da: 643 022 475.

Bi logelako etxebizitza, garajeko plaza batekin. Galtzaragaina kalea, 3. Igoailuarekin. 656 710 566.

Neska edo emakume batentzako logela bat daukagu alokatzeko Usurbilen. 609 647 728.

Alokairuan hartzeko oztopo arkitektonikorik gabeko etxebizitza txiki edo estudio baten bila gabilta. Adin nagusiko bikote bat gara. 627184674

Lanerako gela bat eskaintzen da, zerbitzuetarako primeran: fisioterapia, masajista, psikologia etab. egokitua. Kokapena eta sarbide ona. 2020an bertitua. 670 410 273.

SALGAI

Izar-etxe beheko etxea salgai. 85 metro koadro inguru eta txokoa ditu. Informazioa Elizalden: 943353534.

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUAIKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

MOTORRA

SALMENTA, GARAJEAK

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

Munalurra 4 zenbakian lokal bat daukagu alokatzeko. 652 765 583.

LANPOSTUAK

LAN ESKAINTZAK

Sukaldari laguntzailea behar dugu lanaldi osorako Kalezarko Matiaren zainzadun etxebizitzan auzuneko kafetegirako. 670 654 272.

Umeak zaintzeko eskolako garaian, goizez edo arratsalde. Usurbilgoa eta euskalduna naiz. 616 273 785.

Datorren ikasturtean haurrak eskolatik jaso eta etxera ekartzeko pertsona baten bila gabilta. 12:00-14:00, asteleheneetik ostiralera. Kotxea izatea eta euskara jakitea beharrezkoa. 617792736

Laukote okindegian, astebukaeretan lanaldi erdiz aritzeko. 634 401 171
Aginaga sagardotegian, lanaldi osorako zerbitzaria behar da. Euskaraz

jakitea beharrezkoa da. 943 366 710

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Manikura egiteko zerbitzua eskaintzen dut. Hartu zure hitzordua whatsapp bidez: 611282203.

Ikasturtean zehar haurrak zaintzeko prest nagoen gazte usurbildar bat naiz. Umeekin esperientzia daukat. Orduategian malgutasuna. 688805307

Soziosanitario titulua dut. Adinekoak zaintzeko prest, edozein txandatan. 611 72 79 74.

Orduka garbiketa-lanak egingo nituzke. Garbiketa-lanak egiten esperientzia daukat. 602 082 583.

BESTELAKOAK

Etxean egindako gozogintza enkarguz eskatu dezakezu @deliciascreativasdey / 624356763 (Deynis).

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	943 368 770
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkarrea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Pobxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzguna	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Kalezar Eguneko Zentroa	943 365 249	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUNEZ

Osteguna, 19	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Ostirala, 20	ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte-Oria / 943 36 35 49
Larunbata, 21	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Igandea, 22	URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte / 943 36 65 67
Astelehena, 23	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Astearte, 24	ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte / 943 36 26 52
Asteazkena, 25	DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte / 943 37 11 51
Osteguna, 26	LASA SUQUIA Kale Nagusia 42. Lasarte / 943 36 17 74
Ostirala, 27	GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte / 943 36 07 08
Larunbata, 28	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21
Igandea, 29	GANDARIAS-URIBE Iñigo Loiola 9. Lasarte / 943 01 95 21

GAUEZ EGUNERO

(22:00etatik 09:00etara)

AIZPURU ODRIÓZOLA, KARMELE: Latxunbe Berri, 11 Hernani 943 33 60 77

Gipuzkoako farmazien egutegia eskura izateko:

COF Gipuzkoa aplikazioa deskargatu Google Play-etik edo AppStore-etik.

HILDAKOAK



Juan Sarasua Garmendia
Urriaren 14an hil zen, 79 urterekin

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta ipini nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaitez gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 20

USURBIL "Haurren aurrean, helduak heldu"

Jokai euskal mitologian inspiratutako jolas kooperatiboak eta txokolate jatea.

17:00etan herri erdigunean.

LARUNBATA 21

USURBIL "Andatza mendiko defentsa-lerroa" ibilbide antzeztua

Izen-ematea, usurbilkultura.eus plataforman.

9:30 Mikel Laboa plazatik abiatuko dira eta 14:30erako bueltatzea aurreikusi da.

IGANDEA 22

USURBIL Buruntzaldeko ibilbideen 15. Eguna

Buruntzaldeko eskualdea eta bere landa-ingurune naturala ezagutzeko aukera. Ikus 10. or.

USURBIL "Usurbil Museo Irekia" bisita gidatua

Izen-ematea: 650usurbilbizi.eus. Oharra: gazteleraz izango da bisita gidatu hau.

12:00etan, Sutegin.

USURBIL 'Artxibo biluzia' antzezlana

Egonaldi irteerako emanaldia eta publikoarekin kontrastea. Sarrera, doan. Baina gonbidapena eskuratu behar da usurbilkultura.eus plataforman.

18:00etan, Sutegin.



Andatzen berreskuratu dituzten lubakiak erakutsiko dituzte.

'Andatza mendiko defentsa-lerroa' ibilaldi gidatua eta antzeztua

1936ko gerraren inguruko tes-tuinguru historikoa azaldu eta berreskuratu dituzten lubakiak erakusteko ibilaldi gidatu eta antzeztua antolatu du Usurbil 1936 elkarteak larunbaterako. "Andatza mendiko defentsa-lerroa" izan zen eremura abiatuko dira goizeko 9:30ean

Mikel Laboa plazatik. Gonbidapenak usurbilkultura.eus plataforman eskura ditzakezue. "Bisitariek 14 urtetik gora eduki eta mendian ibiltzeko gai izan beharko dute. Ez dira animaliak onartuko taldean". Eurria bada bertan behera geratuko da ibilaldia.

"Enperadorearen Kondaira" Sutegin

Urriaren 24rako Patata Tropikala taldearen "Enperadorearen Kondaira" itzalen ikuskizuna ekarriko du udal liburutegiak Sutegiko auditoriora. Arratsaldeko 18:00etan hasiko da eta doakoa izango da sarrera. Itzalen antzerkiarekin zerikusia du ikuskizun honek.

Eskubaloi partidak

Urriak 21, larunbata

10:00 Infantil mutilak:

-Usurbil K.E.

-Leizaran

11:30 Infantil neskek:

-Usurbil K.E.

-Aloñamendi D

17:00 Jubenil neskek:

-Usurbil K.E.

-Deuko Izarra Elgoibar

Pilota partidak

Urriak 20, ostirala

17:45 Usurbilen:

Infantilak 3. Maila (eskuz banaka Gipuzkoa):

-Pagazpe (Ugarte)

-Hondarribia

-Pagazpe (Usabiaga)

-Behar zana

Kadeteak 3. Maila (Eskuz binaka Gipuzkoa):

-Pagazpe

(Indakoetxea-Jauregi)

-Oiarpe 1

Nagusiak 1. Maila (Eskuz binaka Gipuzkoa):

-Pagazpe

(Santxo-Urruzola)

-Ospele

Urriak 21, larunbata

Goizez, 9:30 Aginagan:

Palaz binaka, Gipuzkoa 1. Maila:

-Pagazpe (Errasti-Salegi)

-Lagunak

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATERA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO RPS: 28/22
943 37 08 78 NAGUSIA 10, 1 C4 USURBIL

USURBIL DÖNER KEBAB
843 675 265
603 609 183
USURBIL DÖNER KEBAB USURBIL_DK
Borda Berri Kalea, 5



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

ITE-ak

649 43 54 75
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

·ERAIKUNTZAK ·OBRAK
·BERRITZE LANAK

ARANKA
BERRIKUNTZAK

·Fatxaden estaldurak ·Estalkien berriztatzeak
·Barruko berrikuntzak ·Gremioen koordinaketa
·Igeltseritza orokorra

Tel: 606 37 21 05 USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

Telefona
693 059392

e-posta:
uraitz@uraitz.com

Geltoki Kalea 15 behea, Lasarte-Oria

ITZIRA
ERAIKUNTZAK

·gremioen koordinaketa
·berritze lanak
·sukaldeak
·komunak

943 530 337
607 119 313

errekatxiki 7, USURBIL itzira@hotmail.es

IRUARKAITZ
ERAIKUNTZAK, S.L

·FATXADAK ETA TEILATUAK
·ERAIKUNTZAK ·BARRUKO BERRIKUNTZAK
·URALITA KENTZEKO ENPRESA
BAIMENDUA

630 90 02 79 AGINAGA

GAR
GRUPO MONROY

BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK

943 53 72 38 - 628 45 78 39 - 628 91 72 15
reformas@reformasmonroy.com

NAGUSIA 35, BEHEA USURBIL



Antonio URRUZOLA
AROSZTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415
Astasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Iñaki
AROSZTEGIA

943 362 664
Barren Etxe kalea ZUBIETA

J. R. IBARGOEN S.L.
ZURGINTZA-SUKALDEAK
ALTZARI BEREZIAK

www.carpinteriaibargoien.arotzgi.net jr.ibargoien@arotzgi.net

943 36 14 48 - 676 45 31 76



ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL



antenas Telemar

943 55 33 99
info@antenastelemar.com

Elkano kalea 13, HERNANI



APARICIO
DEKORAZIOA ETA
PINTURA LANAK

Tel. 943 36 60 59 628 883 943
Puntapax, 3 - 3.B 20170 USURBIL



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

Iñaki Iturgintza

BEROKUNTZA · GASA · AIRE EGOKITUA
ZORU BERO-EMAILA
ITURGINTZA · ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com - www.inakiiturgintza.com

Tfnoa.: 600 024 825

Zuri Arrain
iturgintza

TEL: 678 45 31 48 • 943 651 465
zuriarrainiturgintza@gmail.com

Rafa
iturgindegia

· ITURGIN LAN OROKORRAK · DUTXAKO HANPARAK
· KONFINDATZAZKO GREMIOAK · KOMUNENKO ALTZARIAK

Bordaberri kalea 1, 1 behea • 943 36 80 04

ANORGA TXIBI S.L.
KRISTALDEGIA

·komertzial instalazioak
·beira bikoitza ·segurtasun beirak
·dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45
Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA

maiz
hornigaiak

·TRESNERIA ETA ERREMINTAK
·EGUR ETA AROTZ-LANETARAKO HORNIDURA

suministrosmaiz.com (ONLINE DENDA ERE)
Ugaldea polig. 18, USURBIL 943 36 99 39

URTEAK BETE, ABENTURAK BIZI!

pirritx, Porrotx
eta Marimotots



AZAROAK 5, IGANDEA
11:30 OIARDO KIROLDEGIAN

Sarrerak: 8€ usurbilkultura.eus plataforman

noqua



Usurbilgo Udala

www.katxiporreta.eus

